



2023KO DIRULAGUNTZA DEIALDIA EUSKARAZKO UDALEKUETAN PARTE HARTZEAGATIK

Garesko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bidez, euskara hutsez egindako udalekuetan parte hartzea diruz lagunduko du, betiere, segituan definiturik dagoenaren arabera.

OINARRIAK

LEHENA.- Deialdiaren xedea.

1.1. Deialdi honek xedea du eduki ludikoak, kiroletakoak eta/edo naturarekin harremanetan egotekoak proposatzen dituzten euskarazko udalekuak, D ereduko ikasleentzat antolatzen direnak, sortzen duen gastua hein batean finantzatzea. Dirulaguntza hauek 2023. urteko aurrekontuko 1 33500 4800000 diru-sailaren kontura joanen dira. Xede honetarako, gehienez ere, 1.300 € erabiliko dira.

1.2. Deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

a. Txangoak eta bidaiak.

b. Udalerrian edo udalerritik hurbil egoteagatik barnetegi erregimena eskatzen ez dutenak.

BIGARRENA.- Dirulaguntza eskatzeko baldintzak.

2.1. Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahalko dute euskarazko udalekuetarako dirulaguntza:

a. LHko edo DBHko ikaslea izatea.

b. D ereduko ikaslea izatea (ikastetxe publiko edo ikastolan euskaraz ikasten dutenak).

c. Garesen erroldatua egotea udalekua irauten duen bitartean eta dirulaguntza eskatu eta ebazten den bitartean.

HIRUGARRENA.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Diruz lagunduko dira D ereduko ikasleentzat (ikastetxe publiko edo ikastolan euskaraz ikasten dutenak) antolatutako euskara hutsezko udalekuak, hau da, bizi den udalerritik kanpo egonaldietan parte hartzeagatik sortutako gastuak.

3.2. Haur/gazte bakoitzak udaleku bakarrarengatik jaso ahalko du dirulaguntza.

3.3. Udalekuak 5 egun (4 gau) baino gehiago eta 15 egun (14 gau) baino gutxiago iraun beharko du, eta udako oporraldian gauzatuko da (ekainaren 20tik irailaren 12ra).

LAUGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.



4.1. Eskabideak irailaren 13tik irailaren 30era aurkeztuko dira Garesko Udalaren Erregistroan. Horretarako deialdi eskabide orokorra bete eta sinatu beharko da. Eskabideari deialdi honetako bosgarren oinarrian ezarritako agiriak eta informazioa erantsi beharko zaizkio.

4.2. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

4.3. Aurkeztutako eskabidea deialdi honetan ezartzen diren baldintzak edo agiriak beteko ez balitu, eskatzaileari, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezinean horiek aurkezteko eskatuko zaio eta jakinaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aldez aurretik eginiko ebazpena bidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71.artikuluari adierazten duen bezala.

BOSGARRENA- Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioa.

5.1. Eskabidearekin batera ondoren aipatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztu beharko dira:

a. Eskatzailearen guraso baten edo legez ordezkatzan duen tutore baten Nortasun Agiriaren fotokopia.

b. Familiaren diru-sarrera gordinak adierazten dituen agiria (aurreko urteko errenta aitortpena).

c. Adinez txikia eskolatuta dagoen ikastetxearen eskolatzeko-agiria, non ikastetxearen izena eta hizkuntza ereduaren zein den agertzen den.

d. Udalekua antolatzen duen entitateak izenpeturiko dokumentua, non hari buruzko baldintzak –euskarari emandako tratamendua eta helburu linguistikoak, iraupen data, jardueren egitaraua edo liburuxka, prezioa- eta asistentzia egiaztatzea azaldu behar diren.

e. Udalekuaren matrikula ordainagiria (banketxeak egindakoa) non kostuaren %100 ordainduta agertuko den.

f. Dirulaguntza jasotzeko nahi den banku-libretako lehen orriaren fotokopia (IBAN zenbakia).

SEIGARRENA.- Eskabideen balorazioa.

6.1. Eskabideak ondoren adierazten den bezala baloratuko dira:

a. Kontutan hartuko dira familiaren urteko diru-sarrera gordinak (errenta aitortpeneko 507, 8810 eta 8808 laukitxoetako kopuruen gehiketa ken 708 laukitxoko kopurua) eta familia unitatea osatzen dutenen artean zatitu.

b. Diru-sarrerak ziurtatzeko, azkeneko Errenta Zergaren aitortpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da, edo, aitortpena egiteko beharra ez dutenen kasuan, hori adierazten duen Foru Ogasunak eginiko agiri bat. Hori aurkeztu



ezean, eskatzaileak jasotako familiaren diru-sarrera gordinen Zinpeko Aitorpena aurkeztu beharko du, eta ziurtagiriek frogatu.

c. Aurreko guztiez aparte, eskatzailearen familiako diru-sarrera errealak frogatzeko, Udalak beharrezkoak baiesten dituen froga-agiri guztiak eska ditzake.

6.2. Dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, 150 eurokoa izanen da eta ondorengo baremo ekonomikoaren arabera banatuko da:

PCE <5.000 € %75
PCE 5.001 € eta 8.000 € artean %60
PCE 8.001 € eta 10.000 € artean %45
PCE 10.001 € eta 15.000 € artean %35
PCE 15.001 € eta 20.000 € artean %25
PCE >20.000 € %15

6.3. Beken eskaera urte batekoa izanen da, eta ematea baldintzatuta egonen da eskatu duen ariketa ekonomikoan Udalak duen aurrekontua izateari.

6.4. Edozein kasutan, eta aurrekontuaren arabera, Udalak beste irizpide batzuk aplikatuko ditu, behar izanez gero, hala nola eskatzaile kopurua eta bakoitzari egokitutako kopurua, kantitate horren banaketa proportzionala eta bidezkoa egin ahal izateko. Azken hau aplikatuz gero, egokitutako kantitatean moldaketak suerta daiteke.

ZAZPIGARRENA.- Eskabideen azterketa eta ebazpena.

7.1. Aurkeztutako eskabideak Euskara Zerbitzuak baloratuko ditu eta, ebazpen proposamena egiteko, ofizios burutuko ditu datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkoak estimatzen dituen jardunbideak.

7.2. Dirulaguntzak Alkatetzaren Ebazpena bidez emanen dira.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpena emateko epea.

8.1. Ebazpena, gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta bi hilabeteko epean emanen da.

8.2. Epe hori pasatzen bada inolako ebazpenik eman gabe, eskatzaileak eskabidea ezeztatua bezala ulertu ahalko du.

BEDERATZIGARRENA.- Jakinarazpena edo argitaratzea.

9.1. Kontzesio ebazpena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaio eta bertan deialdia, egitaraua eta aurrekontu kreditua zehaztuko da, bai eta onuraduna, emandako kantitatea eta xedea. Ebazpena Garesko Udalaren Iragarki Oholean argitaratuko da.

9.2. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurtsio hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:



- a. Berraztertzeko helegitea, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-helegitea, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien epaitegiari edo sailari zuzendua.
- c. Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

HAMARGARRENA.- Diru-laguntzen ordainketa.

10. Emandako dirulaguntzaren ordainketa burutuko da dirulaguntzak ematen dituen ebazpena egin eta biharamunetik kontatuta hilabeteko epean.

Gares, 2023ko maiatza.